



## **Mutrikuko Udala**

### **UDALTZAINGOKO AGENTEEN LAN-POLTSA OSATZEKO HAUTAKETA-PROBETARAKO OINARRIAK**

**2022 URTEA**

#### **OINARRIAK**

##### **LEHENA.- DEIALDIAREN XEDEA ETA ARAU OROKORRAK**

Deialdi honen xedea da Udaltzaingoko lan-poltsa osatzeko behar diren langileak hautatzea, C2 klasifikazio taldearen barruan eta 2. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila erakutsita.

Hautatutako langileekin, Udaltzaingoan gerta daitezkeen hutsuneak eta gerta daitezkeen zerbitzu-beharrak bete nahi dira.

Sortzen den lan poltsak lehentasuna izango du administrazio publiko honetan edo gai honetan eskudun den beste batean lehenago sortutako lan poltsen aurretik.

##### **BIGARRENA.- HAUTAGAIEN BETEBEHARRAK**

Probetara onartua izateko eta, hala balitz, haietan parte hartzeko nahitaezko betebeharrak dira:

- a) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean 18 urte beteta izatea.
- b) Eskola-graduatu, lehen mailako lanbide-heziketako titulua edo baliokidea lortzeko eskubideak izatea edo ordainduta izatea. Hala badagokio, arauz aurreikusitako baliozkotutako egoeraren batean egotea.
- c) B motako gidabaimena edukitzea.
- d) Euskal Herriko Poliziaren hautaketa- eta prestakuntza-araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren eranskinari jarraiki, lanpostuari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea.
- e) 2. Hizkuntza Eskakizunari dagokion euskara maila izatea.
- f) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko inolako kausatan barne ez aurkitzea eta inolako Administrazio Publikotako zerbitzutik diziplina-espiediente bidez baztertu izana ez izatea.
- g) Dolozko delituagatik kondenatuta ez egotea, Herri Administrazioiko zerbitzutik bereizita ez egotea eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez egotea. Hala ere, errehabilitazioaren onura aplikatu ahal izango da, arau penalen eta administratiboen arabera, baldin eta izangaiak dagokion agiri ofizialaren bidez egiaztatzen badu.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoren batean sartzeko hautaketa-prozesu batetik kanpo utzi ez izana, arau-hauste larri edo oso larri bat egiteagatik, salbu eta preskripzio-eparearen baliokidea



## **Mutrikuko Udala**

den denbora igaro bada, bazterketa deklaratu den egunetik zenbatzen hasita.

Bigarren oinarrian zerrendatutako betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta kontratazio-egunean mantendu.

### **HIRUGARRENA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA.**

Eskabideak Mutrikuko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Txurruka Plaza, 20830 Mutriku), eredu ofizial normalizatuaren bidez, maiatzaren 30a baino lehen. (I.eranskina)

Era berean, eskabideak posta-administrazioetan aurkeztu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4.b) artikulua xedatzen duen bezala. Kasu horretan, eskabideak Alkatetzari bidaliko zaizkio, gutun-azal irekian, posta-bulegoko funtzionarioak eskabideak aurkeztu eta zigilatu ditzan, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Baldintza hori betetzea ezinbesteko baldintza izango da posta-bulegoan eskaera aurkezteko data Erregistro Orokorrean sartzeko datatzat hartzeko.

Honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Hautagaiek udaltzaingoko lan-poltsan sartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela jakinarazi beharko dute, betiere eskabideak aurkezteko epeburu egunerako.

b) Izangaiek eskabidean azaldu beharko dute autonomia-erkidegoko ofizialen artetik zein hizkuntzatan egin nahi dituzten oposizio-faseko ariketak. Epaimahaiak kanpoko erakunde espezializatuaren laguntza behar duen ala ez kontuan hartuta, gaitasun psikologikoa baloratzeko probak diseinatu eta garatzeko, proba horiek diseinatuta dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan egingo dira.

c) Hautagaiek eskabidearekin batera ondoko agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- NANaren fotokopia.
- Eskatutako titulazioaren fotokopia.
- Gidabaimenaren fotokopia.
- Euskararen ezagutzaren egiaztagiria, horrelakorik daukanak.

Hautaketa-probetan, % 33ko ezintasuna edo handiagoa izan eta eskabidean hala adierazi duten izangaiei egokituko zaizkie probak egiteko denborak eta beharrezko baliabideak.

Kasu horietan, eskabidearekin batera, ezintasun-maila zehazteko eskumena duen organo teknikoaren irizpena aurkeztu beharko da, epaimahaiak eskatutako egokitzapenen bidez kotasuna baloratu ahal izan dezan.

### **LAUGARRENA.- DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOA BETETZEA**

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoa. Datu pertsonalak hautapen-prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko erabiliko dira, interesdunak emandako baimenean eta tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiltzean oinarrituta, hurrenez hurren, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren



## **Mutrikuko Udala**

2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluko a) eta e) letretan jasotakoak, pertsona fisikoen zirkulazio libreari eta datu pertsonalen tratamenduari dagokienez.

Parte hartzeko eskabidean, izangaien berriazko baimena beharko da beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzea onartzeko. Datuen lagapen horren helburu bakarra izango da beste administrazio publiko horien enplegu-eskaintzak jasotzea, legez aurreikusitako baldintzetan, eta, izangaiak berriaz onartzen ez badu, lagapen horren aurka dagoela ulertuko da.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko, Mutrikuko Udaleko Pertsonaleko Departamentuari idazki bat bidali behar zaio. Hautaketa-prozesu hau publikitate-printzipioak arautzen du, eta, beraz, prozesu horretan parte hartzeak esan nahi du hautagaiak onartu egiten dutela Mutrikuko Udalari eskabidean ematen dizkioten datu pertsonalen tratamendua, aldizkari ofizialetan, iragarki-tauletan, web-orrian eta hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak eta behin betikoak argitaratzeko.

### **BOSGARRENA.- HAUTAGAIAK ONARTZEA.**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkateak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du eta zerrenda hori argitaratuko da. Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta 10 laneguneko epean, zerrendatik kanpo uztea eragin duten akatsak edo hutsegiteak zuzendu ahal izango dira, eta horren aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko bihurtuko da behin-behineko zerrenda.

Erreklamazioa eginez gero, onartu edo baztertu ahal izango da; eta, hala badagokio, behin betiko zerrenda behin-behineko zerrenda bezala argitaratuko da.

Onartutako izangaien zerrendan egoteak ez du esan nahi izangaiak hautaketa-prozesuan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztenik.

### **SEIGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.**

Organo eskudunak izendatuko ditu epaimahaiko kideak (lehendakaria, kideak eta idazkaria), eta horiek kalifikatuko dituzte hautaketa-probak.

Epaimahai Kalifikatzailea honela eratuko da:

Lehendakaria:

— Zerbitzuko arduraduna edo haren ordezkoa.

Kideak:

— Zerbitzuko langile bat edo haren ordezkoa.

Idazkaria:

— Mutrikuko Udaleko idazkari kontu-hartzailea edo haren ordezkoa.

Epaimahaiaren jokabidea Administrazio Prozeduraren Legeak kide anitzeko organoei buruz xedatutakoari lotuko zaio.

Epaimahaiak adituen edo enpresa espezializatuen laguntza eskatu ahal izango du egoki irizitako



## **Mutrikuko Udala**

ariketak egiteko, eta horiek beren espezialitate teknikoetan laguntzera mugatuko dira.

Epaimahaia eratzen den unetik aurrera, bertako kideen gehiengoa egon beharko da bertan jardun ahal izateko.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira.

Berdinketak epaimahaiburuaren kalitatezko botoaren bidez ebatziko dira.

Epaimahaiburua (edo haren ordezkoa) agertzen ez bada, dela gaixorik dagoelako, dela kargua hutsik dagoelako, dela legezko beste arrazoiren batengatik, epaimahaiko goragoko mailako kideak ordezkatzeko du, antzintasun handienekoa edo zaharra, aipatutako hurrenkerari jarraituz.

Idazkariaren edo haren ordezkoaren kargua hutsik badago, edo idazkaria bera bertaraten ez bada, gaixorik badago edo titularrari edo ordezkoari eragiten dion legezko beste arrazoiren bat badago, epaimahaikideen gehiengoz hautatutako kideak beteko du kargu hori.

Epaimahaiak autonomia osoz jardungo du, eta prozeduraren gardentasunaren eta objektibotasunaren, proben edukiaren eta deialdiaren oinarriak behar bezala betetzearen erantzule izango da.

Era berean, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, batetik, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu, eta, bestetik, deialdia behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu; azkenik, oinarri hauetan aurreikusten ez diren kasuetan erabili beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Epaimahai kalifikatzailearen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena dagokion organoarentzat, eta horrek ez du esan nahi organo horrek erabakiak berrikusteko eragozpenik duenik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoaren arabera.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako epaimahaiaren helbidea honako hau izango da: Mutrikuko Udala. Txurruka Plaza, 20830 Mutriku.

### **ZAZPIGARRENA.- HAUTAKETA PROZESUAREN HASIERA ETA GARAPENA. DEIALDIAK ETA JAKINARAZPENAK**

Mutrikuko Udaleko iragarki-oholean eta [www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus) orrian iragarriko dira oposizio-ko lehen ariketa egiteko lekua eta data.

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie oposizio-aldiko ariketa bakoitzerako. Hautagairen bat ez bada agertzen probetako edozeinetan, proba horietarako deialdia egiten zaionean, galdu egingo du proba horretan edo hurrengoetan parte hartzeko eskubidea. Beraz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Epaimahaiak ariketak egiteko behar diren denbora eta baliabideak egokituko dizkie hala eskatu eta justifikatu duten pertsona ezinduei, gainerako izangaien aukera berberak izan ditzaten, betiere egokitzapen horiek probaren edukia indargabetzen ez badute eta kasu bakoitzean eskatzen den gaitasun-maila murriztu gabe.

Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu izangairen batek ez dituela betetzen deialdian jasotako betebeharrak edo baldintzak, pertsona hori prozeduratik kanpo geratuko da, dagokion



## **Mutrikuko Udala**

entzunaldi-izapidea egin ondoren, eta horren guztiaren berri emango zaio, egun berean, hautaketa-prozesuaren deialdia egin duen agintaritzari.

Epaimahaiak oposizio-aldiko ariketak egiteko hurrenkera aldatzea erabaki ahal izango du. Kasu horretan, ariketa hasi baino gutxienez 12 ordu lehenago jakinaraziko die izangaiei aldaketa.

Interesdunek deialdiari buruzko informazio orokorra jaso ahal izango dute [www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus) webgunean. Web orriak izaera informatiboa izango du. Bertan, besteak beste, oinarriak, onartutakoen zerrenda, ariketen datak eta lortutako kalifikazioak kontsultatu ahal izango dira.

### **ZORTZIGARRENA.- HAUTAKETA PROBAK**

Izangai guztiek NAN edo beste agiri ofizial bat aurkeztu beharko dute probetan. Epaimahaiaren iritziz, nahikoa da izangaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzeko (pasaportea, gidabaimena, AIZ); epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango die izangaiei dokumentazio hori erakusteko. Ez NANA ez beste identifikazio-bide nahikorik aurkezten ez bada, izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da ondorio guztietarako.

Oposizio-aldiko ariketa bakoitzean, probak zuzendu eta izangai bakoitzaren nortasuna eta kalifikazioa jakinarazi aurretik, epaimahaiak ariketa gainditzeko gutxieneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza-maila finkatu ahal izango du.

Epaimahaiak ariketak oinarri hauetan aurreikusitakoaz bestelako hurrenkeran egitea erabaki dezake; era berean, egun berean hainbat ariketa egitea erabaki dezake. Kasu horretan, aurreko ariketak gainditu dituzten izangaien ariketak baino ez ditu zuzenduko.

Arau orokor gisa, lau laneguneko epea ezarriko da, Epaimahaiaren ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita, egindako probak berrikusteko eskatzeko eta lortutako kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Idatzizko proben kasuan, epaimahaiak neurri egokiak hartuko ditu, ahal den neurrian hautagaien anonimotasuna bermatzeko.

Deialdi honetako ariketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin ahal izango dira, eskabidean adierazita.

#### **1. proba: Gaitasun fisikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.**

Probak Mutrikuko kirol instalakuntzetan egingo dira,.

Ondorengo proba fisiko hauek egin beharko dira:

##### **1.- Erresistentzia fisikoko proba.**

Epaimahaiak ezarriko ditu baremoa eta proba gainditzeko gutxieneko maila.

##### **2.- Indar fisikoko proba.**

Epaimahaiak ezarriko ditu baremoa eta proba gainditzeko gutxieneko maila.



## **Mutrikuko Udala**

### 3.- Abiadura proba.

Epaimahaiak ezarriko ditu baremoa eta proba gainditzeko gutxienerako maila.

GAI edo EZ GAI kalifikatuko da, eta markaturiko gutxienerako mailak lortzen ez dituztenak beste gabe kanporaturik geratuko dira.

### 2. proba. Euskararen ezagutza-maila egiaztatzea.

Proba honen kalifikazioa gai edo ez gai izango da.

Proba hau ez dute egin beharrik izango 2. hizkuntza eskakizunaren edo baliokide baten egiaztatzea dutenek, seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

### 3. proba. Teorikoa.

Galdera teorikoen galdetegi bati idatziz erantzutea eta/edo epaimahaiak horretarako prestatutako kasu praktikoko batzuei buruzko txostenak idaztea, udaltzaingoaren eginkizunei dagokienez.

Datuak azaltzeko gaitasuna eta edukiaren argitasuna baloratuko dira.

0 eta 50 puntu artean kalifikatuko dira, eta ariketa gainditzeko gutxienez 25 puntu lortu beharko dira.

### 4. proba.

Txosten bat idaztea izango da, epaimahaiak jarritako balizko kasu bati buruzkoa. Datuak azaltzeko gaitasuna eta edukiaren argitasuna baloratuko dira.

Proba hau 0-40 bitarteko puntuazioz kalifikatuko da, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

### **BEDERATZI.- EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA**

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa ariketa bakoitzean lortutako puntuazioaren eta lehiaketa-fasean lortutako puntuazioaren batura izango da; batura horrek izangaien lehentasun-hurrenkera zehaztuko du.

Kalifikazio osoa amaitu ondoren, epaimahaiak Mutrikuko Udaleko iragarki-taulan eta [www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus) webgunean argitaratuko ditu probak gainditu dituzten hautagaien izenak, lortutako puntuazioekin batera, handienetik txikienera ordenatuta, eta puntu gehien lortu dituen izangaia kontratatzea proposatuko du.

Berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera jardungo da, hemen ezarritako ordenari jarraituz:

a) Puntuekin berdindutako hautagaietako bat emakumea den kasuetan, lehentasuna izango du, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua 4. puntuaren arabera, honako hau xedatzen baitu: «Gaikuntza-berdintasuna badago, lehentasuna emango zaie emakumei Administrazioako kidego, eskala, maila eta kategorietan, baldin eta kidego, eskala, maila eta kategoria horien ordezkartza % 40tik beherakoa bada, salbu eta beste hautagaia ez den beste arrazoi batek eragindako diskriminazio-arrazoi gisa parte hartzen badu. Kasu horretan, b), c) eta d) letretan jasotako irizpideak aplikatuko



## **Mutrikuko Udala**

lirateke, gertatutako berdinketa desegiteko:

- b) Ariketa praktikoan puntuazio handiena lortu duen izangaia.
- c) Lehiaketa-fasean puntuazio handiena lortu duen izangaia.
- d) Oposizio-fasean puntuazio handiena lortu duen izangaia.

Epaimahaiaren iritziz deialdian aurkeztutako izangaietako batek ere ez baditu betetzen lanpostua betetzeko gutxienerako baldintzak, epaimahaiak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, hau da, ez esleitzea.

Proposatutako izangaiak, probak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik zazpi (7) egun naturaleko epean, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztu beharko ditu.

Aipatutako epean, eta ezinbesteko arrazoirik egon ezean, proposatutako izangaiak ez badu eskatutako dokumentazioa aurkezten edo ez badu egiaztatzen deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela, ezin izango da kontratua gauzatu, eta jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira. Ondorioz, kontraturako eskubide guztiak galduko ditu, hasierako eskabidean datu faltsuak emateagatik izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Kasu horretan, hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen artean, hurrengo postuan dagoen pertsona kontratatzea proposatuko litzateke, puntuazioaren arabera ordenatuta. Aurretik, eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu beharko du.

Ariketen eta merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, lan-poltsa bat osatuko da oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangai guztiekin, prozesu osoan (oposizio-fasean zein lehiaketa-fasean) lortutako puntuazio handienetik txikienera bitarteko hurrenkerari jarraituz.

### **HAMARGARRENA: GERTAKARIAK**

Epaimahai Kalifikatzaileak aurkezten diren zalantzak erabakitzeke eta Oposizioaren bideratze egokirako behar diren erabakiak hartzeko eskumena izango du, Oinarri hauetan eta horren ordez aplikagarri den legerian aurreikusi gabeko guztian.

### **HAMAIKAGARRENA.- AURKAPENAK**

Deialdi honi, bertako Oinarriari eta horretatik zein Epaimahaiaren jardueratik eratortzen diren egintza administratibo guztiei aurka egin ahal izango zaie, Herri Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduetan eta epeetan.

### **HAMABIGARRENA.- LAN POLTSAREN INDARRALDIA**

Lan poltsa hau indarrean mantenduko da berri bat osatu bitartean.

### **HAMAHIRUGARRENA.- ARAUDI APLIKAGARRIA**



## **Mutrikuko Udala**

Aplikatu beharreko araudia honako hau izango da: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean diren legezko xedapenen testu bategina onartzen duena; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko langileak sartzeko erregelamendu orokorra onartzen duena; 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua; 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa; 58/2015 Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Euskadiko Udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikatu beharreko esparru-arauak ezartzen dituena; 315/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, Euskal Herriko Polizia hautatzeko eta prestatzeko arautegia onartzen duena; 224/1989 Dekretua, urriaren 17koa, Eusko Jaurlaritzarena; 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, aplikatzekoak diren gainerako lege eta erregelamenduzko xedapenekin batera.